

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO
ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA**

0155/LI/2022 Foru Agindua, martxoaren 8koa, 2022ko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko araudia garatzen duena.

Arrantza aberastasunaren sustapena, Kontserbazioa eta aprobetxamendu antolatua arautzen dituen Ibaietako Arrantzari buruzko 1942ko otsailaren 20ko Legeak eta 1943ko apirilaren 6ko Dekretuz onartutako Erregelamenduak, nahiz 2014ko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazio Legearen testu bateginak eta Natur Ondarea eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak ezarritakoa betez, beharrezko egiten da, batetik, arrantza-aprobetxamenduko espezieen arrantza-aldiak zehaztea, 2022ko denboraldian haien populazioak babestu eta hobetzeko, eta bestetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan behar bezain babesturik ez dauden edo urriak diren espezieen arrantza debekatzeko.

Bestalde, 0647LI/2018 Foru Aginduak, azaroaren 26koak, ortzadar amuarrainak (*Oncorhynchus Mykiss*) 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzkoa indarrean jarri aurretik hartzen zuen mugaketa kartografikoa onartzen du, aipatu espezie hori, exotiko inbaditzaile bezala katalogatua dagoena, ez dadin hedatu aipatu indarrean jarri zen data horren aurretiko banaketa-eremuen mugetatik kanpo.

Eusko Jaurjaritzaren 42/1985 Dekretuaren bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 21/1985 Foru Dekretuaren bidez, biak martxoaren 5ekoak, egindako transferentzia aldaketaren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio gai hori arau bidez garatzea.

Foru Agindu hau egiteko orduan, era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, ezartzen duena kontuan hartua izan da.

Hortaz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Arrantza Kontinentalaren Kontseiluari entzunik, foru diputatu honek ondorengo Foru Agindua onartzea xedatu du honako atalekin:

1. artikulua. Harrapa daitezkeen espezieak.

Harrapa daitezkeen espezieak honako hauek dira:

Izokin atlantiarra (*Salmo salar*).

Amuarrain arrunta (*Salmo trutta farío*).

Amuarrain ortzadarra (*Oncorhynchus mykiss*).

Barboa (*Barbus graellsii*).

Loina txikia (*Parachondrostoma miegii*).

Lupia arrunta (*Dicentrarchus labrax*).

Hondoetako korrokoia (*Chelon labrosus*).

Platuxa (*Platichthys flesus*).

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA,
TURISMO Y MEDIO RURAL**

Orden Foral 0155/LI/2022, de 8 de marzo, por la que se desarrolla la normativa que regulará el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley de Pesca Fluvial de 20 de febrero de 1942, por la que se regula el fomento, conservación y ordenado aprovechamiento de la riqueza piscícola, y el Reglamento aprobado por Decreto de 6 de abril de 1943, así como por lo dispuesto en el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril y la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, se hace necesario determinar los períodos hábiles de pesca de las distintas especies con aprovechamiento piscícola para la protección y mejora de sus poblaciones durante la temporada 2022 y vedar la pesca de aquellas otras insuficientemente protegidas o representadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por otro lado, la Orden Foral 0647LI/2018 de 26 de noviembre, publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 240, del 14 de diciembre de 2018, aprueba la delimitación cartográfica del área ocupada por la trucha arcoiris (*Oncorhynchus mykiss*) introducida en el medio natural antes de la entrada en vigor de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, para evitar que dicha especie catalogada como exótica invasora se extienda fuera de los límites de sus áreas de distribución anteriores a dicha entrada en vigor.

Tras producirse las transferencias por el Decreto del Gobierno Vasco número 42/1985 y el Decreto Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa número 21/1985, ambos de 5 de marzo, corresponden a esta última el desarrollo normativo en esta materia.

Para la elaboración de la presente Orden Foral igualmente se ha tenido en cuenta lo establecido por la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

En consecuencia, oído el Consejo de Pesca Continental del Territorio Histórico de Gipuzkoa, este Diputado Foral ha dispuesto:

Artículo 1. Especies pescables.

Las especies pescables serán:

Salmón atlántico (*Salmo salar*).

Trucha común (*Salmo trutta farío*).

Trucha arcoiris (*Oncorhynchus mykiss*).

Barbo (*Barbus graellsii*).

Loina o Madrilla (*Parachondrostoma miegii*).

Lubina (*Dicentrarchus labrax*).

Corcón (*Chelon labrosus*).

Platija (*Platichthys flesus*).

2. artikulua. Arrantzara aldiak, egunak eta orduak.

1. Arrantzaldiak:

a) Aurtengo denboraldian, ibai arrantzaldia apirilaren 1etik uztailaren 31ra izango da, biak barne.

b) Araxes, Leitzaran I eta Leitzaran II hil gabeko arrantzan egiteko barrutietan, arrantzaldia, berriz, martxoaren 19an hasiko da.

c) Urumea, Oria, Urola eta Debako hil gabeko arrantza tar-te batzuetan, II. eranskinean zehazten direnak, eta Ibiurreko ur-tegian, arrantzaldia irailaren 30era arte luzatuko da, egun hori barruan dela.

d) Ziprinidoen arrantza, 9 artikuluan izendatutako tartee-tan, urte osoan egin ahal izango da.

e) IV eranskinean deklaraturako arrantza intentsiboko bar-rutiak irekita egongo dira ondorengo data hauetan: Agauntza, 2022ko urriaren 1etik aurrera 2023ko martxoaren 31ra arte; Araxes, 2022ko abuztuaren 1etik aurrera 2023ko martxoaren 17ra arte; Leitzaran, 2022ko irailaren 1etik aurrera 2023ko martxoaren 31ra arte.

2. Arrantza egunak: arrantzaldiaren barruan, arrantzan egi-teko egunak asteko egun guztiak izango dira.

3. Arrantza orduak: egunsentia baino ordubete lehenago-tik eta ilusentira arte.

3. artikulua. Gehieneko harrapaketa kopurua.

1. Arrantzale bakoitzak egunero harrapa dezakeen espe-zie bakoitzeko gehieneko harrapakin kopurua honako hau da:

Amuarrain arrunta (*Salmo trutta fario*): 3.

Amuarrain ortzadarra (*Oncorhynchus mykiss*): 3.

Barboa (*Barbus graellsii*): 6.

Loina (*Parachondrostoma miegii*): 25.

Lupia arrunta (*Dicentrarchus labrax*): 5.

Hondoetako korrokoia (*Chelon labrosus*): 12.

Platuxa (*Platichthys flesus*): 12.

2. Harrapaketan hautaketarik ez dadin egin, ezingo da, baimendutako tamainako amuarrain bat harrapatzen bada, hura ibaira itzuli, egun osoan hil gabeko arrantzaren modalita-tea bakarrik egiten den kasuan salbu.

4. artikulua. Gutxieneko eta gehieneko neurriak.

Harrapa daitezkeen espeziatarako, gutxieneko neurriak hau-ek izango dira:

– Amuarrain arrunta (*Salmo trutta fario*): 22 cm.

– Amuarrain ortzadarra (*Oncorhynchus mykiss*): 22 cm.

– Barboa (*Barbus graellsii*): 20 cm.

– Loina (*Parachondrostoma miegii*): 8 cm.

– Lupia arrunta (*Dicentrarchus labrax*): 36 cm.

– Hondoetako korrokoia (*Chelon labrosus*): 20 cm.

– Platuxa (*Platichthys flesus*): 25 cm.

Amuarrain arruntaren kasuan (*Salmo trutta fario*), 35 cm izango da gehieneko neurria.

Arrain baten luzera buruaren aurreko muturretik isats heda-tuaren erdiko punturaino neurtuko da (furka).

Adierazitakoa baino luzera laburragoa edo luzeagoa duten arrain guztiak uretara itzuliko dira, handik atera bezain laster.

Artículo 2. Períodos, días y horas hábiles.

1. Períodos hábiles:

a) El período hábil para la pesca en aguas continentales durante la presente temporada será el comprendido entre el 1 de abril y el 31 de julio, ambos inclusive.

b) En los cotos de pesca sin muerte de Araxes, Leitzaran I y Leitzaran II, el período hábil de pesca se iniciará el 19 de marzo.

c) En algunos de los tramos de pesca sin muerte de los ríos Urumea, Oria, Urola y Deba, especificados en el anexo II, así como en el embalse de Ibiur, el período hábil se prolongará hasta el 30 de septiembre inclusive.

d) La pesca de ciprínidos, en los tramos establecidos en el artículo 9, podrá realizarse durante todo el año.

e) Los cotos de pesca intensiva, declarados en el anexo IV, estarán abiertos en las siguientes fechas: Agauntza del 1 de octubre de 2022 hasta el 31 de marzo de 2023; Araxes del 1 de agosto de 2022 al 17 de marzo de 2023, Leitzaran, del 1 de septiembre de 2022, al 31 de marzo de 2023.

2. Días hábiles: Dentro de la temporada de pesca, se considerarán días hábiles para el ejercicio de la pesca, todos los días de la semana.

3. Horas hábiles: Las comprendidas entre una hora antes del orto (amanecer) y el ocaso (anochecer).

Artículo 3. Número máximo de piezas capturables.

1. El número máximo de ejemplares de cada especie que se puede capturar por pescador o pescadora y día, es el siguiente:

Trucha común (*Salmo trutta fario*): 3.

Trucha arcoiris (*Oncorhynchus mykiss*): 3.

Barbo (*Barbus graellsii*): 6.

Loina o Madrilla (*Parachondrostoma miegii*): 25.

Lubina (*Dicentrarchus labrax*): 5.

Corcón (*Chelon labrosus*): 12.

Platija (*Platichthys flesus*): 12.

2. Con el objeto de evitar que se seleccionen las capturas, una vez que se haya pescado una trucha de tamaño legal, ésta no se podrá devolver al río, excepto si se está practicando la pesca sin muerte como única modalidad de pesca durante toda la jornada.

Artículo 4. Dimensiones mínimas y máximas.

Las dimensiones mínimas de captura para las especies pes-cables serán las siguientes:

– Trucha común (*Salmo trutta fario*): 22 cm.

– Trucha arcoiris (*Oncorhynchus mykiss*): 22 cm.

– Barbo (*Barbus graellsii*): 20 cm.

– Loina o Madrilla (*Parachondrostoma miegii*): 8 cm.

– Lubina (*Dicentrarchus labrax*): 36 cm.

– Corcón (*Chelon labrosus*): 20 cm.

– Platija (*Platichthys flesus*): 25 cm.

Para la trucha común (*Salmo trutta fario*) se establece una talla máxima de 35 cm.

La longitud del pez se medirá desde el extremo anterior de la cabeza hasta el punto medio de la aleta caudal (furca).

Se restituirán a las aguas, inmediatamente después de ex-traerse de las mismas, todas las piezas cuya longitud sea infe-rior o superior a las indicadas.

5. artikulua. Arrantza tresnak eta elementu lagungarriak.

1. Arrantza tresnak: arrainak harrapatzeko, kanabera da arrantza-tresna baimendu bakarra. Oro har, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ibai eta urtegietan, arrantzale bakoitzeko bi kanabera onetsiko dira eta biak eskura izan beharko ditu arrantzaleak.

2. Tresna lagungarriak: harrapatzen diren arrainak, amutik askatzerakoan, ahal den gutxien kaltetzeko, derrigorrezkoa izango da «salabardoa» erabiltzea. Kanaberarekin harrapatutakoak uretatik ateratzeko lagungarri gisa bakarrik erabiliko da tresna hori.

Hil gabeko arrantzan egiteko tarte eta barrutietan, arrantzatutako arraina lurretik arrastaka eramatea edota ur gainazaletik gora altxatzea, debekatuta dago.

6. artikulua. Beita eta amuak.

1. Beita natural gisa, baimentzen den bakarra lur-zizarea da (lumbricidae).

2. Hil gabeko arrantzarako tartetan, barrutiak nahiz libreak izan, honako hauek bakarrik baimentzen dira: euli artifiziala bere modalitate guztietan (euli lehorra, ninfa, serpentina eta euli itoa), koilara edo ur gaineko buia (gehienez 3 eulirekin) eta arraien imitazio artifizialak edo karramarroak 7 cm baino handiagoak, ez usain ez zaporerik ez dutenak, guztiak amu bakarrenekin eta garrangarik gabe.

3. Debekatuta dago edozein motatako garrangadun amuak erabiltzea. Erabilera baimentzen da baldin eta garrangak behar bezala zapalduta egoten badira. Beita edo amu bakoitzeko amu simple bakarra onartuko da.

4. Debekatuta dago arrantzan egin aurretik edo arrantzan egin bitartean uretara beita botatzea.

5. Debekatuta dago arrantzan ari den guneko arauak baimentzen ez dituzten aparailu, beita edo harrapaketak edukitzea.

6. Era berean, eta tamainaren arabera aske utzi behar den harrapaketak zaintzeko, arrantza-kontinental baimenduta dagoen tartetan beita naturalarekin egiten bada, amuek gutxieneko neurri hauek izango dituzte: 20 mm luze eta oinarrian 7 mm zabal.

7. Izokin-ibaietan (Bidasoa, Oiartzun, Urumea, Oria, eta Leitzarar) debekatuta dago arrantzan egitea presetatik eta eskale-tako sarreretatik 50 m baino gertuago, eta amuarrain-ibaietan (Urola eta Deba) 25 m baino gertuago.

7. artikulua. Dokumentazioa.

1. Gipuzkoan arrantza kontinental egin ahal izateko, hone-lako agiri hauek behar dira, Euskal Autonomia Elkarteko ibaietan arrantza egiteko baimena arautzen duen 1997ko urriaren 7ko 216/97 Dekretuaren arabera (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 203 zk., 1997ko urriaren 23koa):

- Ibai arrantzarako erkidegoko baimena.
- Dagokion urteko tasaren ordainagiria.
- NA edo pasaporte, eta 14 urte baino gazteagoen kasuan, haien nortasuna frogatzen duen edozein agiri.
- Arrantza-pasea, hurrengo atalean arautzen dena.

2. Derrigorrez eguneko arrantza-pase bat lortu beharko da.

Arrantza-paseak pertsonalak eta besterenezinak izango dira, bai arrantza-barrutietarako (arrantza-barrutiak eta arrantza intentsiboko barrutiak), bai mugatu gabeko eremuetarako (tarte libre, hilgabeko arrantza tarteak eta ziprinidoen tarteak). Arrantza-barrutietakoak ordaindu egin beharko dira, aldiz, gainerako eremuetakoak doakoak izango dira.

Arrantza-pasea esteka honen bidez lortuko da:

<https://arrantza-paseak.aplikazioak.gipuzkoa.eus/>

Artículo 5. Artes de pesca y elementos auxiliares.

1. Artes de pesca: El único arte de pesca autorizado para la captura de peces es la caña de pescar. Con carácter general, en los ríos y masas de agua del Territorio Histórico de Gipuzkoa solamente se admitirán dos cañas por pescador o pescadora, debiendo estar al alcance de la mano.

2. Elementos auxiliares: Con el objetivo de dañar lo menos posible los ejemplares capturados al soltarles el anzuelo, será obligatorio el uso de la «sacadera» o «salabardo». Este elemento se empleará exclusivamente como ayuda para extraer de las aguas las capturas efectuadas con la caña.

En los tramos y cotos de pesca sin muerte, queda prohibido arrastrar por el suelo o elevar por encima del agua las capturas.

Artículo 6. Cebos y anzuelos.

1. Como cebo natural, el único autorizado es la lombriz de tierra (lumbricidae).

2. En tramos declarados como «sin muerte», sean acotados o libres, solo se autoriza el uso de la mosca artificial en todas sus modalidades (mosca seca, ninfa, streamer y mosca ahogada), la cucharilla y el buldo o boya flotante (con un máximo de 3 moscas) e imitaciones de peces artificiales o cangrejos con tamaño superior a 7 cm que no contengan ni aromas ni sabores, todos ellos con un solo anzuelo y sin arponcillo.

3. Queda prohibido el empleo de todo tipo de anzuelos de pesca con arponcillo. Sólo se permitirá su uso si los arponcillos están convenientemente aplastados. Únicamente se permitirá por cada cebo o señuelo un solo anzuelo simple.

4. Se prohíbe cebar las aguas antes o durante la pesca.

5. Se prohíbe la tenencia de aparejos, cebos o capturas que no estén autorizados por la normativa que rige el tramo en el que se encuentre ejercitando la pesca.

6. Asimismo, y con objeto de proteger las capturas que, en razón de su tamaño, deban ser liberadas, cuando la práctica de la pesca continental se lleve a cabo con cebo natural en los tramos en que esta práctica esté autorizada, los anzuelos utilizados deberán medir al menos 20 mm de longitud total y 7 mm de anchura en la base.

7. Se prohíbe pescar en los ríos salmoneros de Gipuzkoa (Bidasoa, Oiartzun, Urumea, Oria y Leitzarar) a menos de 50 m de las presas o de las entradas de las escalas, y en los ríos trucheros (Urola y Deba) a menos de 25m.

Artículo 7. Documentación.

1. Para poder ejercitar la pesca continental en Gipuzkoa, y de acuerdo con el Decreto 216/97, de 7 de octubre, por el que se regula la licencia de pesca fluvial en la Comunidad Autónoma del País Vasco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 203, de 23 de octubre de 1997), son necesarios los siguientes documentos:

- Licencia autonómica de pesca fluvial.
 - Justificante del pago anual de la tasa correspondiente.
 - DNI o pasaporte, y en el caso de las personas menores de 14 años cualquier documento que acredite su personalidad.
 - El pase de pesca que se regula en el punto siguiente.
2. Será obligatorio obtener un pase de pesca diario.

Los pases de pesca serán personales e intransferibles, tanto para cotos (cotos de pesca y cotos de pesca intensiva), como para zonas no acotadas (tramos libres, tramos sin muerte, y tramos de ciprinidos), y serán de pago para los tramos acotados y gratuitos para los no acotados.

El pase de pesca se obtendrá a través del siguiente enlace:

<https://arrantza-paseak.aplikazioak.gipuzkoa.eus/>

8. artikulua. Arrainen bizitza babestea.

Ondorengue debeku eta betebeharrak ezartzen dira:

1. Debekatzen da seinaleztatuta dauden errun aldeetan uretan sartzea, apirilaren 30era arte, egun hori barruan dela.
2. Debekatuta geratzen da ornogabeak ateratzea Gipuzkoako ibai eta errekaetatik.
3. Legezko neurri iristen ez den ale bat harrapatuz gero, eta arrainari ezin bazaio amua kendu hari kalte larria egin gabe, amurrairari haria moztuko zaio ahotik ahalik eta gertuen, eta aske utziko da.
4. Debekatzen da arrantza errazteko asmoz, edozein prozedura erabiliz harrizko, egurrezko edo beste material bateko oztopo edo barrerak jartzea, edo ubideak nahiz ur-emariak aldatzea.
5. Debekatuta geratzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko ibai eta urtegitan uretako edozein espezie sartzea edo askatzea, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren beharrezko baimena izan gabe.
6. Arrantzalea behartuta dago bere saskien eta antzeko elementuen edukia edozein unetan erakustera, baita ibilgailuak miazten uztera ere, basozainek edo errekaizainek eskatzen badiote.

9. artikulua. Ziprinidoen arrantza tartea.

Ziprinidoak, orokorrean ezarritako garaian harrapatu ahal izango dira, honako tartean izan ezik:

- Urola ibaia: Aizarnazabalgo zubi zaharretik Zestoako bainu-etxeke zubi zaharreraino.
- Deba ibaia: Sasiolako zubitik Altzolako errotaraino, Elgoibarko udalerrian. Horietan ziprinidoak arrantzatzea urte osoan baimentzen da.

10. artikulua. Espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako zerrenda eta katalogoko arrain espezieak.

Arrantzak debekaturik jarraitzen du. 630/2013 Errege Dekretuarekin bat eginez, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa arautzen duena, espezie hauen arrantza Urkuluko urtegitan arautuko duen berariazko araudia Foru Agindu bidez onartuko da. Arrantza mota hau, espezie hauek kudeatu, kontrolatu edota desagerrarazteko ezartzen da.

11. artikulua. Karramarroak.

Arrantza debekaturik jarraitzen du. 630/2013 Errege Dekretuarekin bat eginez, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa arautzen duena, karramarroaren arrantza Leitza-ran arautuko duen berariazko araudia Foru Agindu bidez onartuko da. Arrantza mota hau, espezie hauek kudeatu, kontrolatu edota desagerrarazteko ezartzen da.

12. artikulua. Arrantza egiteko baimenduta dauden ibai, erreka eta urtegiak.

Ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko arrantza guneak zerrendatzen dira (tarte libre, hil gabeko arrantzan egiteko tartea, arantza barrutiak eta arrantza intentsiboko barrutiak).

Gipuzkoan arrantza, bakarrik «Arrantza Guneetan» egin daiteke. «Arrantza guneak» izeneko zerrendan aipatzen ez diren ibai, erreka eta urtegiak debekupeko tartea dira.

Arro hidrografiko bakoitzeko «Arrantza Guneak» kontsultatu daitezke ondoren zehazten diren esteken bitartez.

Arrantza guneak.

* Bidasoa Arroa:

<https://goo.gl/maps/S8sskvs4MGM2>

– Bidasoa ibaian bi «arrantza gune» daude:

1. Tarte internazionala: beheko muga, Lamiarri baserritik, tarte internazionalaren bukaerara arte.

Artículo 8. Protección a la fauna piscícola.

Se establecen las siguientes prohibiciones y obligaciones:

1. Queda prohibida la entrada en el agua en las zonas de freza debidamente señalizadas hasta el 30 de abril inclusive.
2. Se prohíbe la extracción de invertebrados de los ríos y regatas de Gipuzkoa.
3. Cuando se haya capturado un ejemplar de talla inferior a la preceptiva y la extracción del anzuelo sea imposible sin dañar gravemente al pez, se cortará la línea lo más cerca posible de la boca y se liberará la trucha.
4. Queda prohibido instalar por cualquier procedimiento obstáculos o barreras de piedra, madera u otro material, o la alteración de cauces o caudales, para facilitar la pesca.
5. Se prohíbe introducir o soltar cualquier especie acuática en las masas de agua continental del Territorio Histórico de Gipuzkoa, sin contar con la debida autorización del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.
6. El pescador o la pescadora está obligado en todo momento a mostrar el contenido de sus cestas o elementos análogos, así como permitir el registro de los vehículos, cuando el guarderío lo requiera.

Artículo 9. Tramos de pesca de ciprínidos.

El período hábil para la pesca de ciprínidos coincide con el general, a excepción de:

- Río Urola: tramo comprendido entre el puente de Aizarnazabal y el puente viejo del Balneario de Zestoa.
- Río Deba: tramo comprendido entre el puente de Sasiola, hasta el molino de Alzola, en el término municipal de Elgoibar, donde se permite su pesca durante todo el año.

Artículo 10. Especies piscícolas del listado y catálogo español de especies exóticas invasoras.

Permanece prohibida su pesca. De acuerdo con el Real Decreto 630/2013, de 2 de agosto, por el que se regula el catálogo español de especies exóticas invasoras, se establecerá mediante la correspondiente Orden Foral la normativa específica para su pesca en el embalse de Urkulu, como método de control, gestión y erradicación de dichas especies.

Artículo 11. Cangrejos de río.

Permanece prohibida su pesca. De acuerdo con el Real Decreto 630/2013, de 2 de agosto, que regula el catálogo de especies invasoras, se establecerá, mediante la correspondiente Orden Foral, la normativa específica para la pesca del cangrejo señal en Leitza-ran, como método de control, gestión y erradicación de dicha especie.

Artículo 12. Ríos, regatas y embalses autorizados para la pesca.

A continuación, se listan todas las «zonas de pesca» (tramos libres, tramos de pesca sin muerte, cotos de pesca, y cotos de pesca intensiva) del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La pesca en Gipuzkoa, única y exclusivamente se puede practicar en las «Zonas de Pesca». Todos los ríos, regatas y embalses que no se citan en el siguiente listado de «zonas de pesca», se consideran tramos vedados.

Se pueden consultar las «Zonas de pesca» de cada cuenca hidrográfica accediendo a los enlaces señalados a continuación.

Zonas de pesca.

* Cuenca del Bidasoa:

<https://goo.gl/maps/S8sskvs4MGM2>

– Río Bidasoa, dos zonas de pesca:

1. Tramo internacional: límite inferior, el caserío Lamiarri, hasta el final del tramo internacional.

Izokina nahiz ibaietako bestelako ur espezieen arrantza garai eta baldintzak 1959ko uztailaren 14ean sinatutako Bidasoa eta Higerreko Badian arrantza egiteari buruzko Hitzarmenak ezarritakoak izango dira.

2. Nafarroarekin mugatzen duen tartea: beheko muga, tar-te internazionalaren bukaeratik, Nafarroako mugaraino.

Nafarroako Debekuei buruzko Aginduan xedatutakoari jarraituko zaio.

* Oiartzun Arroa:

<https://goo.gl/maps/3oayH5q9mXH2>

– Oiartzun ibaian bi «arrantza gune» daude:

1. Beheko muga, Gabierrotako pasagunetik Vicente Cobros kaleko zubira arte. Errenerriako udalerria.

2. Oiartzun eta Sarobe ibaiek bat egiten duten gunetik Arditurri errekarerekin bat egiten duten guneraino. Oiartzungo udalerria.

* Urumea Arroa:

<https://goo.gl/maps/z7XBJ2HjYaQ2>

– Urumea ibaian 3 «arrantza gune» daude:

1. Beheko muga, Ergobiako zubitik Eziagoko pasagune arte. Hernaniko udalerria.

2. Lastaola industrialdera doan zubitik Arriurdiñetako presa arte.

3. Latxe erreka ibai-ahotik Bezkita erreka arte.

* Oria Arroa:

<https://cutt.ly/TAjvAe>

– Oria ibaian bi «arrantza gune» daude:

1. Beheko muga, Usurbilgo Zubietako zubitik Tolosako Arramele auzora arte.

2. Beheko muga, Tolosako presa puzgarritik Zegamako Ugarteburu kaleko zubira arte.

– Agauntza ibaia: Oria ibaian isurtzen duenetik Kaxetako zubiraino. Beasain, Lazkao eta Ataungo udalerriak.

– Albistur ibaia: beheko muga Urkizu auzoko sarrera, eta goiko muga, Errotazar baserriaren zubia.

– Amundarain ibaia, bi «arrantza gune»:

1. Beheko muga, Oriarekin bat egiten duen puntua, eta goiko muga, Berdillari baserria (Antzolarats eta Amundarain bat egiten duten puntuan). Término municipal de Zaldibia.

2. Beheko muga, Urtsu erreka, eta goiko muga Arkakako zentral hidro elektrikoa. Ordizia, Arama eta Zaldibia udalerriak.

– Araxes ibaia: Oria ibaian isurtzen duenetik Nafarroako mugaraino. Altzo, Lizartza eta Gazteluko udalerriak.

– Asteasu ibaia: Oria ibaian isurtzen duenetik, Arraiaga errekarerekin bat egiten duen guneraino. Asteasu eta Zizurkilgo udalerriak.

– Leitzarain ibaia: Oria ibaian isurtzen duenetik Berastegiko Plazaola presa arte.

– Santiagoerreka ibaia: Oria ibaian isurtzen duenetik Andatzako goiko zubiraino. Aiako udalerria.

– Zelai ibaia: Oria ibaian isurtzen duenetik Ugane baserria eta presaraino. Tolosa, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Berastegi eta Elduaingoko udalerriak.

– Arriaran urtegia.

– Ibiur urtegia.

– Lareo urtegia.

Los períodos y condiciones de pesca, tanto del salmón como de otras especies acuáticas en el tramo internacional del río Bidasoa, son los establecidos en el Convenio relativo a la pesca en el Bidasoa y Bahía de Higer suscrito el 14 de julio de 1959.

2. Tramo fronterizo con Navarra: límite inferior, el final del tramo internacional, y hasta el límite con Navarra.

Será de aplicación la Orden de Vedas de Navarra.

* Cuenca del Oiartzun:

<https://goo.gl/maps/3oayH5q9mXH2>

– Río Oiartzun, dos «zonas de pesca»:

1. Límite inferior, pasarela de Gabierrota, hasta el puente de la calle Vicente Cobros. Término municipal de Errenería.

2. Desde la confluencia de los ríos Oiartzun y Sarobe, hasta la unión con la regata de Arditurri. Término municipal de Oiartzun.

* Cuenca del Urumea:

<https://goo.gl/maps/z7XBJ2HjYaQ2>

– Río Urumea, 3 «zonas de pesca»:

1. Límite inferior, desde el puente de Ergobia hasta la pasarela de Eziago. Término municipal de Hernani.

2. Del puente de acceso al polígono industrial de Lastaola, hasta la presa de Arriurdiñeta.

3. Desde la desembocadura de la regata Latxe, hasta la regata Bezkita.

* Cuenca del Oria:

<https://cutt.ly/TAjvAe>

– Río Oria, dos «zonas de pesca»:

1. Límite inferior, desde el puente de Zubieta en Usurbil, hasta el barrio de Arramele, en Tolosa.

2. Límite inferior, presa hinchable de Tolosa, hasta el puente de la calle Ugarteburu, en Zegama.

– Río Agauntza: desde la confluencia con el río Oria hasta el puente de Kaxeta. Términos municipales de Beasain, Lazkao y Ataun.

– Río Albistur: límite inferior cruce al barrio de Urkizu, y límite superior, puente del caserío Errotazar.

– Río Amundarain, dos zonas de pesca:

1. Límite inferior, la confluencia con el río Oria. Límite superior: el caserío Berdillari (desembocadura regata Antzolarats). Término municipal de Zaldibia.

2. Límite inferior: la desembocadura del arroyo Urtsu-erreka. Límite superior: la central hidroeléctrica de Arkaka. Términos municipales de Ordizia, Arama y Zaldibia.

– Río Araxes: desde la confluencia con el río Oria hasta el límite con Navarra. Términos municipales de Tolosa, Altzo, Lizartza y Gaztelu.

– Río Asteasu: desde la desembocadura en el río Oria, hasta la confluencia con la regata Arraiaga. Términos municipales de Asteasu y Zizurkil.

– Río Leitzarain: desde la confluencia con el río Oria, hasta la presa de Plazaola en Berastegi.

– Río Santiagoerreka: desde la confluencia con el río Oria, hasta el puente superior de Andatza. Término municipal de Aia.

– Río Zelai: desde la confluencia con el río Oria hasta la presa y caserío Ugane. Términos municipales de Tolosa, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Berastegi y Elduain.

– Embalse de Arriaran.

– Embalse de Ibiur.

– Embalse de Lareo.

* Urola Arroa:

<https://goo.gl/maps/y8yCtaqHUUH2>

— Urola ibaian hiru «arrantza gun» daude:

1. Aizarnazabalgo zubitik tren geltokiaren estaldura arte (Urretxun, Akelarre Elkartearen atzekaldean).

2. Zumarraga-Urretxuko Aparicio estalduratik Legazpiko Sidenor (Antxute) estalduraino.

3. Legazpiko Azpikoetxe kaleko zubitik Telleriarteko Pastain etxera doan zubiraino. Legazpiko udalerrria.

— Ibaieder ibaia: Urola ibaian isurtzen duenetik Orbegozo tabernaren zubiraino. Azpeitiko udalerrria.

— Errezil ibaia: Ibaieder ibaian isurtzen duenetik Domusako zubiraino. Azpeitia eta Errezilgo udalerrriak.

— Ibaieder urtegia.

— Barrendiola urtegia.

* Deba ibaiaren arroa:
